

208. ALDIZKARIA - 2015eko urriaren 20a

ANTSOAIN

Antsoaingo Udalaren deialdi publikoa, garapenerako lankidetzak proiektuei diru-laguntzak emateko. 2015. urtea

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko urriaren 7an egin bilkuran, deialdia eta oinarriak onetsi zituen, garapenerako lankidetzak proiektuak egiteko diru-laguntzak emateko, 2015. urtean.

Herrialde pobreekin lankidetzan aritzeko proiektuak kofinantzatzea. Proiektu horien helburua izanen da tokian tokiko giza garapena sustatzea hainbat arlotan: hezkuntza, prestakuntza, osasuna, etxebizitza, giza eskubideen defentsa, garapen ekonomikoa eta landako edo hirietako komunitateen onerako diren azpiegiturak, komunitateek eta haien ordezkariak zuzeneko parte hartzea dutelarik proposatze, kudeatze eta gauzatze lanetan eta, orobat, arreta berezia ematen dietelarik genero ikuspuntuari, ingurumenaren gaineko eraginari eta baliabide naturalen erabilera iraunkorrari.

Antsoaingo herritarrak sentsibilizatzeko jardueren programa bat erantsiko zaie proiektuei, herrialde horien egoera agerian uzteko, haien arazoei buruz hausnarketa kritikoak egiteko jarrerak garatzeko eta gai honen guztiaren inguruan jendearen parte hartze aktiboa sustatzeko.

Lehentasunez jarduteko eremuak hauek dira deialdi honetan:

- Osasuna bere osotasunean lantzen duten proiektuak: haurren heriotza tasa murrizteko programak, osasun azpiegiturak (ospitaleak, anbulatorioak), hango herritarrek osasunaren alorreko prestakuntza izateko programak, sexu eta ugaltze osasuna hobetzeko programak, prebentzioaren eta osasunerako hezkuntzaren gaineko programak.
- Emakumearen aldeko sustapen eta garapen proiektuak, haren bizi baldintzak hobetu eta haren eskubideak zein aukerak sustatzeko direnak.
- Ingurumenaren saneamenduko proiektuak: urez hornitzeko sistemak eta oinarrizko saneamenduaren zerbitzuak eta azpiegiturak.
- Oinarrizko hezkuntza: lehen mailako hezkuntza den-denei zabaltzea, hezkuntzaren azpiegiturak hobetzea, helduak alfabetatzea.
- Elkartasunerako ekonomia, kooperatibak, elikadura subiranotasuna, finantza solidarioak, etab., baita antolamendua indartzea, politikan parte-hartzea eta giza eskubideak babestea xedea duten proiektuak ere. Komunitatearen antolamendua hobetzeko gaitasuna lortzeko proiektuak.
- Talde oso ahulak: Herri indigenak, gutxiengo etnikoak; eta errefuxiatuak.
- Habitat eta eremu hondatuak berreskuratzea, eremuaren garapen sozioekonomikoa hobetzeko helburuarekin.

Gehienez ere aurreikusitako zenbatekoa: 35.000,00 euro, Antsoaingo Udaleko gastuen aurrekontuko 1-4621-48203 kontu-sailaren kontura finantzatzeko direnak.

Oinarriak hartzeko tokia: Antsoaingo Udalaren Erregistro Orokorra, Udaletxeko plaza, 1, 1. solairua; edo Udalaren web orrian, www.ansoain.es.

Eskabideen aurkezpena.–Eskabideak aurkeztuko dira Udalaren Erregistro Orokorrean edo egoitza elektronikoaren bidez (www.ansoain.es).

Eskaerak aurkezteko epea hogeita egun baliodunekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Antsoainen, 2015eko urriaren 8an.–Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

Iragarkiaren kodea: L1513877